

FONTES LINGVÆ VASCONVM

stvdia et
docvmenta



SEPARATA

Año XLVI • Número 118 • 2014

Artzibarko aldaera deitu izanaren
inguruan

(eta 9 – Aditzaz zerbait Elkanoko
aldaerarekiko erkaketan)

KOLDO ARTOLA

FONTES

LINGVÆ VASCONVM

stvdia et docvmenta



Hacia una periodización de la fragmentación del euskera occidental <i>Gontzal Aldai</i>	221
Basaburu Txikiko euskararen lekukoak (I) <i>Gorka Lekaroz</i>	247
Batallonaren ordena. Doneztebe, 1840 <i>Juan Jose Zubiri</i>	279
Aipuaren aipuari tiraka. Melchor Oiangurenen euskal gramatiken eta hiztegi hirukoitzaren bila euskalaritzaren hastapenetan <i>Mikel Aizpuru</i>	321
Birformulatzaille laburbiltzaileen balio diskurtsiboen azterketa corpusean oinarrituta <i>M.ª Jesús Aranzabe / José M.ª Arriola</i>	339
Las mujeres de <i>El amigo congelado</i> de Joseba Sarrionandia: la utilización de personajes femeninos para hacer frente a los límites del lenguaje <i>Eider Rodriguez</i>	359
Topónimos alaveses de base antroponímica que tienen <i>huri</i> o <i>villa</i> como formante <i>Patxi Salaberri Zaratiegi</i>	367
Artzibarko aldaera deitu izanaren inguruan (eta 9 – Aditzaz zerbait Elkanoko aldaerarekiko erkaketan) <i>Koldo Artola</i>	393

Año XLVI
Número 118
2014

Artzibarko aldaera deitu izanaren inguruan

(eta 9 – Aditzaz zerbait Elkanoko
aldaerarekiko erkaketan)

KOLDO ARTOLA*

SARRERA LABURRA

Izenburuko gaiaz idatzi dugun lanari bukaera emateko, azken saio honetan aditzari buruzko zerbait, azalekoa bada ere, ekarri behar genuela iruditu zaigu. Izan ere, Pedro de Yrizarrek, bere *Morfología del verbo auxiliar alto navarro meridional* izeneko lanean ukitzen duen aditzaren arloa modu indikatiboarena baizik ez izatean, bestelako aipamenak egitea ere, aditz trinkoena bereziki, komenigarria ez ezik jakingarria ere badela uste izan baitugu.

Yrizarrek, aipatu lanaren hasieran idatzi zuen *Prólogo*-an, zera dio, besteak beste:

Por otra parte, Bonaparte consideraba peculiar del alto-navarro meridional (y del aezcoano) la ausencia de *-n* final en las flexiones de pretérito [Bonaparte - *Verbe basque*, «Observations», p. XXIV]. Sin embargo, esta particularidad no es general en el citado dialecto, por lo que lógicamente, aun en el caso –prácticamente imposible– de que se establecieran sus límites con arreglo a esa característica, estos serían muy diferentes de los fijados por el príncipe y, en todo caso, serían muy inestables, como podrá comprobar el lector, cuando examine –en este aspecto de la *-n* final– las

* Donostiako ARANZADI Zientzi Elkarteko Etnografi Sailekoa. Esker biziak damazkiot, arazo gehienbat gramatikalak direla-eta, Euskal Filologian lizentziaduna den eta laguntzaile izan dudana Xabier semeari.

variantes empleadas por informadores de un mismo pueblo y en muchos casos, las utilizadas por el mismo informador, con manifiesta inseguridad en la presencia o no de dicha *-n* final.

Saio honetan, egia esan, Yrizarren lanean agertzen ez den datu gutxi dago; alabaina, bi aldaera hauetako –Artzibarko eta Elkanoko– datu batzuk hona ekarri, elkarren ondoan idatzi, erkatu eta iruzkin batzuk egin nahi izan ditugu, batera zein neurritan datozen eta zeinetan ez ikusteko.

Honen aurreko *Artzibar-8* saioan, hala ere, aditzek batzuetan nozitzen dituzten baldintza, menderagailu, sandhi edota beste kasuren batzuk islatzen saiatu ginen.

Erkaketarako orduan hikako kontuetan ditugun urritasunak handiak izan dira. Ezagun da Bonapartek, 1869 urtean edo, Elkanoko Javier Larrainzar izeneko lagunari egundoko bilketa egin ziola, hikako era guztiak barne, baina gainerako herrietan hauetatik oso gutxi ditugu: Elkanoko Lizarragak halako batzuk jaso zituen aldika; Zabalegiko, Urizko eta Adoaingo izkribuetan apenas (edo bat ere ez) dago, eta duela hogeita hamar urte inguru berriemaile izan genituen Ilurdozko eta Arrietako lagunek, beren zahartzaroan, eskertzeko moduko ahalegina egin zuten artean doi-doi oroitzen zutena ematean; hots, hikako erak edo ez zituzten ikasi edo, ikasi bazituzten, jada ahazturik zeuzkaten.

Arrietako euskarari eta, beraz, baita bertako aditzari buruz berri xumea dakarren *Erizkizundi Irukoitza*-ko daturik ez dugu hemen baliatu, lanak oso adizki gutxi ekartzeaz gainera, berriemailea fidagarria iruditzen ez zaigulako, ez baitzen Arrieta berean sortu.

Artzibarko eta Elkanoko aldaera hauek, oroitarazi nahi dugu, Bonaparte printzeak *cispamplonés*-tzat jo izaniko azpieuskalkiaren baitan sailkatu zituela, eta Yrizarrek, berriki, Artzibarkoa bi azpialdaeratan: iparraldekoa eta hegoaldekoa (*Mvaanm*). Lehenengoaren barruan, Lusarreta, Zaragueta, Hiriberri, Arrieta, Imizkotz, Gorraiz, Orotz-Betelu (berari dagokion Olaldea auzoarekin) eta Azparren kokatu zituen, *nor-nori-nork* gisako jokoan, ‘nik hari’ eta ‘nik haiei’ sailetan, *-ako-* ezaugarria, Aezkoatik sarturik antza, azaltzen delako. Hontaz, Yrizarren beraren *Aparición y desaparición de las formas verbales en -ako-, -eko-, en el alto-navarro meridional* izenburu luzeko lana kontuan hartzeari egoki deritzogu, eragin horrek esparru hau zertxobait gainditu duenez, Orreagan, Auritzen eta Erroibarko zenbait herritan ere bildua izan delako. Gogora dezagun, dena den, **eradun* oinarriko adizkiak ohikoak direla Nafarroa Garaiko idazki zaharretan: bai *draco* ‘derauko, dio’ erakoak, bai beste pertsoneri dagozkienak ere.

ADOAINGO EUSKARAREN KOKAPENA

Iritsi zaigun herri honetako euskara nahasiaren sailkapena, Elkanoko aldaeraren baitan balizko moduan txertatua, kontu handiz hartu beharreko gauza dela garbi dugu, bertan lapurteraren eragina, aditz kontuetan bereziki, hain agerikoa denez. Baina, hala berean, dela lexikoan dela beste zenbait gauzatan, hor kokatua izateko aski zio ematen duela iruditzen zaigu, gure honen aurreko saiora (*Artzibar-8*) ekarri datuei erreparatuz gero, behinik behin.

Honetaz mintzatuak dira aspaldi Juan San Martin (*FLV*, 26), Jose Mari Satrustegi (*FLV*, 29) eta Patxi Ondarra (*FLV*, 46) euskaltzainak, beste zenbait lagunek egin ekarpenak edota iruzkinak aipatuz. Balizko interesduna *Fontes*-eko aleok ikustera animatzen dugu, Aita Estebanen mintzamoldearekiko nondik norakoak ulertzeko lagungarriak direlakoan. Garai bateko Aita Larramendi jesuitaren eta Pedro Agerre *Axular* Sarako erretorearen lanek, besteak beste, harengan izaniko eragina aipagai dira lanotan.

Hortaz, arestian aipatu saioan Aita Estebanen izkribuetatik ateratako datu batzuk, hitzak gehien bat, beste zenbait herritan bildurikoekin erkatze-ko xedez aurkeztu genituen eran, oraingo honetan izkribu berberetan aurkituriko aditzak bildu eta txertatu ditugu hemen asmo berberarekin. Gure iritzia da aurreko saioko hitzak, oro har eta salbuespenak salbuespen (hauek asko samar izanik ere), hobeki uztartzen direla gainerako herrietan bildurikoekin oraingo honetan ditugun aditzen kasuan baino; hots, hitzak erkatze-an aurkitu uste ditugun ezberdintasunak txikiagoak iruditu zaizkigu, nolabait esateko, aditza erkatzean baino, honek bai, aldi askotan, Lapurdi aldeko eragina agerian uzten duelako.

Satrustegik ere, arestian aipatu *Fontes*-eko alean, Adoaingo fraidearen euskararen inguruko bere iritzia eman zuela oroitarazi nahi dugu (honen aurreko saioan aipatu genuen), gurearekin guztiz bat ez datorrena. Hona hark idatzitako zati batzuk:

Aita Adoainen euskara Ipar aldekoa da gehien bat. Hiztegian eta joskeran ageri da. *Deliberacione fermu* erabiltzen du, *asmo sendo* edo erdal *propósito firme* itzultzeko. *Fite ezagutu cituen* dio beste nunbait, laster, behala ezagutu zituela agertzeraz emateko. Begiratu batekin ikusten da.

Horrek ez du esan nahi txikitik etxeko euskararik ikasi ez zuenik. 1808an jaio zen, urriaren hamekan. Bere bizia aztertu duen aita Ildefonso Ziaurizkoak dioen bezala, Adoainen euskara egiten zen orduan, gero laster galduko bazen ere. Ikasi zuen, beraz, gurasoen euskara.

Geroxeago, hainbat eratako oharpen eta aipamen egin ondoren, eta fraidea Ameriketatik itzuli zenean (han misiolari egona baitzen) txikitik ikasi euskara «ahantzoraturik edo erdi galdurik» zuela esan ostean, honela dio, besteak beste: «Dirudienez ez zuen hizkuntzaz erabat jabetzeko astirik izan. 1880an hil zen Sanlukar Barramedakoan. Horrexegatik, behar bada bere hizkuntzan badira txikitatik gordetako punduren batzu. Sakonki begiratzeko gauza litzateke».

Azkenik eta beste iritzi batzuk eman ondoren, era honetan bukatzeko: «Ez da nere asmoa iskribuaren barne azterketa sakona egitea, bide ematea baizik. Euskara galdua den herrialde baten lekuko gerta liteke zenbait hitz eta esamesetan».

Hauek guztiak kontuan izanik, bada, ausartu egin gara, Adoain hau, Bonaparte printzeak Elkano kokatu zuen esparru bereko herririka dela kontuan izanik, honen baitan ditugun herri urrietako (guk ezagutzen ditugun herri urrietako) datuekin erkatzeraz. Lehenxeago esan bezala, gure irudipena da aditz kontuetan lapurteraren eragina handiagoa dela gainerakoetan baino, hau iritzi bat besterik ez bada ere. Edozein kasutan, Aita Estebanen lanetatik harturiko ekaiak hona ekartzean gure asmo soila saioan ageri diren gainerakoen alboan idatzi eta, honela, haien arteko balizko antzekotasuna zenbaterainokoa den erakustea izan da.

DATU-EKARPENA

Saio honetarako datuak ekartzean, modu indikatiboari dagokion bezainbatean, Bonapartek Elkanon bildu eta Ondarrak apailatu lana (*FLV*, 39) hartu dugu oinarri, honetan agertzen baitira beharrezkoak ditugun ekai guztiak, hauek zenbateraino diren egokiak alde batera utzita, batzuk desegokiak baitira, geroxeago ikusiko denez.

Aipagai dugun lan honexetan ageri diren hikako adizkiak, bestalde, oso gutxitan baliatu ditugu, beste herriren batean bildurikoekin erkatu ahal izateko adinakoak suertatu zaizkigun neurrian baizik ez. Horrela izan ezean, koadroetara ez ditugu ekarri.

Honetaz landa, dela baldintza-, ahalera-, subjuntibo- edota agintera-kasuetan, hala nola aditz trinkoak agerraraziko ditugunetan, datuak (batzuetan oso urriak), bi herri edo gehiagotan ditugun neurrian azalduko ditugu soilik.

DATUEN KOKAPENA DELA-ETA

Honen aurreko saioan egin bezala, datuak ekartzen dituzten herrien kokapena, mendebaldetik ekialderantz, honako ordenean ageri dira: Zabalegi (Elortzibar), Elkanoko (Eguesibar; hemen bi zutabe: Elkanoko <1800> eta Elkanoko 1869, hots, Elkanoko Lizarraga eta Elkanoko Larrainzar, hurrenez hurren), Ilurdotz (Hego-Esteribar), Uritz eta Arrieta (Artzibar), eta Adoain (Urraulgoiti). Guztiak, esan ere bezala, Bonaparte printzeak *cispamplonés*-tzat jo zuen azpieuskalkiaren barruko esparrurik handienaren baitan, esparru bereko beste hiru aldaerak –Olaibarkoa, Erroibarkoa eta Aurizkoa– erkaketa honetatik at utzita.

Baldintza-, ahalera-, subjuntibo- edota agintera-kasuetako laginak, hala nola aditz trinkoenak hona ekartzean, Elkanoko datuak (Lizarragarenak, Larrainzarrenak, edota bionak batera) beste herriren batean bildu denarekin erkatzeko aukera izan dugunean azalduko dira bakarrik, zeren bestela, aldi askotan, herri honetako bi iturriak beste herrietan ditugunak baino askoz ugariagoak izatean, bata bestearekin erkatzera mugatu beharko baikinake. Hots, baldin, esaterako, baldintzako ‘balira’ bat, Elkanoko bi iturrietan bakarrik izatean (biotan *balire*), zein besterekin erkatzeko aukerarik izan ez badugu, ez dugu aintzat hartu.

Honen aurreko saioan esan genuen bezala, hala Zabalegi eta Elkanoko nola Uritz eta Adoaingo prediku, eskuizkribu, ebanjelio eta doktrinatan erabili ziren idazkera ezberdinen ortografiak bateratzen saiatu gara, guztiz asmatu izanaz ziur ez gauden arren.

Hona beraz, azkenik, batetik eta bestetik eskuratu datuek zenbaterainoko joko eman diguten:

ADITZ LAGUNTZAILEA

NOR, orainaldia eta iraganaldia

Zabalēgi 1785	ELKANO <1800>	Elkano 1869	Ilurdoz 1985	Urutz 1965	ARRIETA 1985	Andoain <1855>
naiz	naiz > nauk	naiz > nauk; naun	naiz > nauk ¹	naiz	naiz, nais > nauk, nak ²	naiz
zare ³	zara, zarade / aiz, iaiz ⁴	zara / aiz	zara / aiz, yaiz	zara / aiz	zara / aiz, ais, (d)iaiz	zara
da	da > duk	da > duk	da > duk	da	da > duk	da
gare	gara, garade	gara > gaituk	gara > gaituk	gara	gara > gaituk	gara, gare
	zarate	zarate	zate		zate	zarate, zate
dire, dirare	dire, dirade	dere ⁵ > tuk	dire > tuk	dire, dira, dere	dire, dira	dire
	nitz, niza	nitza > nitza; nuna ⁶	nitze, nitzen > nauke		nitza, nitze > nindua	nitza ⁷
	zina, zina	zina / itza	zine / itze, yitze		zina, zine / itza	zinan
ze	ze	ze > zua; zuna	ze, zen	ze, zen	ze, zen	ze
gina	gina	gina > ginduta	gine, ginde, gintze		gina, gine > gindua	ginan
		zinate	zinate	zinate		zinate
zire	zire, zirade	zere	zire, ziren	zire ⁸	zire, ziren	ziran, ziren, ziraden

¹ Orainaldian: Ilurdozen, aurreko silaban *i* edo *u* izanez gero, emaitzak *neiz* > *neuk*, *zera* / *yeiz*, *de*, *gera*... eta ildo berekoak izan ohi dira.

² Arrietan, sing. 1. eta 2. pertsonan, *niz* eta *zada* bildu dugu inoiz.

³ Zabalēgiko *zare* eta *gare* horiek Garesen ere, 1869 urtearen inguruan, baziren, Bonapartek bildu eta Ondarrak erakutsi legez; bigarren kasurako adibidea *veynacengarelarić*... batetik hartu dugunez, lirekeena da 'gara' izatea, baina, 'zu' kasurako, predikariak *zare* erabili zuenez, *gare* idaztea irudituz zaigu logikoena.

⁴ 'Elkano <1800>' zutabeko singularreko 2. pertsonan, toketan, *iaiz* kasu honetan: *I barimbaiüz Christo, erranzagie claró* (Doctrina). Arrietan ere *iaiz* dugu inoiz –*erörtzen baiüz*, kasu–, baina baita *diaiz* ere: *biät, törtzen badiüz, emén gelditu biänk*.

⁵ *Dere* hau (plur. 3. pertsona, orainaldian) eta gauza bera *zere* (iraganaldian) bitxiak iruditzen zaizkigu herri honetarako, Bonapartek Olizan eta Gofin bildu bazituen ere (ikus F. Ondarra).

⁶ Iraganaldian: 'Elkano 1869'ko tokako alokutiboak –nokakoak, damurik, ez dauzkagu zerekin erkatu– ez datoz bat ez Ilurdozen ez Arrietan ditugun apurrekin, Ilurdozko *nauke* horrek orainaldiko eratik erakarria baitirudi. Haatik, *-itza* bukaeradunen erakoak aditu ditugu, eta baita bildu ere Errobarko Gurbizar herrixka erorikoan jaso Martin Marmaunen ahotan: *nute / nune*, singularreko lehen pertsonan eta *zute / zune*, hirugarrenean. Arrietako *nindua* hori, inondik ere, ipar Errobarko ohikoa izan da, Aurizberri ere *nindua*, Lintzoainen *nindue* eta Mezkitzen *ninduen* bildurik baikaude, kasu. Arrietan, bestalde, singularreko lehen pertsonan, *nitzan*, *nitza* eta *nitzen* ere aditu dugu, eta pluralekoan, *ginda*, *ginan*, *ginde* eta *ginen*.

⁷ Adoingo erak, *-n* bukaeradunak izan arren, gainerako zutabean ditugunekin batera datoz, eta ez lapurterazko *ni(n)zen*, *zinen / ziñen*... gisakoekin.

⁸ Urizko zutabeko *zire* erlatiboan dugu: *Laurgarrena, isinesacca tsauicela ynfernuctara an ciren arimen justuen atnacera*. Ez dakigu, hortaz, bukaerako *n-a* berezkoa duen, baina ez dugu uste, Urizko doktrinan nagusi den joera ikusita.

NOR-NORI (NOR hura), orainaldia eta iraganaldia

Zabalegi 1785	Elkano <1800>	Elkano 1869	Ilurdoz 1985	Uritz 1865	Arrieta 1985	Adoain <1855>
zaida	zaida zaizu / zaik	zaida ⁹ > zaidak zaizu / zaik; zain	zaidē > zaidēk zaizu / zaik		zaira	zait; zautt ¹⁰
zaiko ¹¹	zaito, zaiko	zayo, zaiko > zayok	zaito, zaidio > zaiok	zayo	zaizu / zaik; zain	
zaigu	zaigu	zaigu > zaiguk	zaigu		zaito	zayo
zaize ¹²	zaize, zaizie	zaize	zaize		zaigu > zaiguk	
zaiote	zaiote	zayote	zaiote, zaidiote	zayote	zaizie	
	zekida, zizaida ¹³	zekida	zaiote, zaidiote		zaiote	
	zizaizu	zekizu	zekie, zakie, zakire		zeikira	
zekio	zekio, zakio, zizai ¹⁴	zekio, zaiio	zakizu		zeikizu	
	zekigu, zizaigu	zekio, zaiio	zekio, zakio, zaiio		zekio, zizekon, zeko	zitzayon, zion ¹⁵
		zekigu	zakigu, zekigu		zekigu, zaiikigu	
		zekize	zaikizue, zaikizie ¹⁶			
	zekiote, zizaiote	zekiote	zaiotiote		zekiote	

⁹ Orainaldian: 'Elkano 1869' deitu zutabeen, singularreko lehen pertsonan, *zaira* ere bai, Arrietan bezala, eta alokutiborzat *zairak*. Lehen pertsona honekiko bukaerak, hala singularrean nola pluralean, *-ida* zein *-ira* ditugu, lekurik ezagatik islatu ez ditugun arren.

¹⁰ Adoaingo *zaiti* / *zaut* horiek inguru hauetatik kanpokoak dirudite.

¹¹ Zabalegiko *zaiiko* hau, Elkanoko bi zutabeetan ere dakusaguna, ez da ohikoa izan hortik ekialdera.

¹² Zabalegiko *zaize* hau ere, Elkanoko bi zutabeetan orobat daukaguna, ez dugu hortik ekialdera aditu, Erroibarko Valero Huarre larraingoarren ahotan izan ezik.

¹³ Iraganaldian: 'Elkano <1800>' zutabeko *zizaida* hau eta ezpal bereko *ziza-* hasierakoak (*zizaitzu*, *zizato*, *zizaitu* eta *zizaitore*) kanpokoak izan litezke agian eta Lizarragak inoiz beretuak, Elkanoko beste zutabeen ez baitira inondik inora agertzen.

¹⁴ 'Elkano <1800>' zutabeen, sing. 3. pertsonan, *zizaiiko* ere bai, eta Arrietan, *zeto* eta *zaiikon*.

¹⁵ Adoaingo *zitzayon* / *zion* horiek kanpotarrak dirudite.

¹⁶ Ilurdorzen, agian, saileko beste erei so eginez, *za-* edota *ze-* itxaron zitezkeen lehen silabatzat, nahiz hirugarren pertsonetan ere *zai-* dakusagun.

NOR-NORI (NOR haiek), orainaldia eta iraganaldia

Zabalegi 1785	Elkano <1800>	Elkano 1869	Ilurdotz 1985	Uritz 1865	Arrieta 1985	Adoain <1855>
	zaizkida	zaizkida	zaizkide, zaizkire ¹⁷		zaizkira	
	zaizkizu	zaizkizu	zaizkizu		zaizkizu	
	zaizkio	zaizkio	zaizkio	zaizkio	zaizkio	
	zaizkigu	zaizkigu	zaizkigu		zaizkigu	
	zaizkizie	zaizkize ¹⁸	zaizkizue		zaizkize	
	zaizkiote	zaizkiote	zaizkiote, zaizkie			
	zekizkida	zekizida	zaizkire, zaizkie		zeizkira ¹⁹	
		zekizizu	zaizkizu		zaizkizu	
zizeiskio	zekizkio, zizaizkio ²⁰	zekio	zaizkio, zizio		zizkio	
	zizaizkigu	zekzigu	zaizkigu		zizkigu	
		zekizie	zaizkizue, zaizkizie		zizkizie	
	zekizkiote, zizaizkio	zekiote	zaizkiote		zizkiote	

¹⁷ Orainaldian: Pluraleko adizki hauei dagokienez, Ilurdozko eta Arrietako orainaldiko zein iraganaldiko erak ia berdinak dira. Kontua da zenbait herritan iraganaldiko erak emateko orainaldikoez baliatzen direla, bukaeran *-n* bat erantsita. Ondorioz, eta inguru hauetan iraganaldiko adizkiek, gehieneran, *-n* hori galtzen dutenez, emaitza, askotan, hura bera izaten da.

¹⁸ Larraingoan, Ilurdoznik ipar-ekialderantz, Arrietarantzko bidean den hego Erroibarko baserrian, *zaizkize* eman zigun Valero Huarte zenak 1988an, Bonapartek mende bat lehenago Elkanon bildu bezala.

¹⁹ Iraganaldian: Arrietan *zeiz-*, *zaiz-*, *ziz-* gisako hasierak ditugu, batzuk besteeikiko oso koherenteak ez badira ere.

²⁰ Elkanoko Lizarragak, arestian objektu singularrekin ikusi bezala, objektu pluralarekin ere bi eratako moldeak erabili zituen, kasu honetan *zekiz-* eta *zizaiiz-* moduko hasieradunak.

NOR-NORK (NOR hura), orainaldia eta iraganaldia

Zabalegi 1785	Elkano <1800>	Elkano 1869	Ilurdorz 1985	Uritz 1865	Arrieta 1985	Adoain <1855>
dut	dut > diat duzu / duk; dun	dut > diat; diñat duzu / duk; dun	dut > diat; diñet duzu / duk	dut	dut > diat	dut
du	du > dik	du > dik	du > dik	du	du > dik	du
dugu	dugu > diagu	dugu > diagu	dugu	dugu	dugu, degu ²¹	dugu
duze	duzue, duzie, duze	duze	duzue, duzie, duze ²²	duzue	duzie, zie ²³	duzue
dute	dute	dute	dute	dute	dute	dute
nue	nue	nue > nia; nina	nue, nuen	nue, nuen	nue, nuen ²⁴ > nia; nina	nuen ²⁵
zue	zindue / iuen	zindue / yue, indue ²⁶	zindue, zinue / yue	zindue	zindue, zinue / yue	zinduen
gindue	gindue, gindu ²⁷	gindue	gindue, gnue	zue, zuen	zue, zuen	zuen
zute	zindute	zindute	zindute; zinuete?	gindue	gindue, ginduen, gnue	
	zute	zute	zute, zuten	zute ²⁸	zute, zuten	zuten

²¹ Orainaldian: Arrietako gure ekaietan, pluraleko 1. pertsonarako, *degu* bitxi bat dakusagu, salbuespen gisa bada ere: *ezpádegu... defénditizen ongi? joain garí fransiseki*.

²² Ilurdorzen, pluraleko 2. pertsonan, *duze* zalantzakoa da, berrak berrienaileak aurrenik baietz eta ondoren ezetz esan zuelako. Herri berean, haatik, *duzute* dugu orobat eta are *zute* laburra ere, baldintza-partikula bati lorurik: *eta náí bezáite... juán*.

²³ Arrietan batzuetan beste hitzen bati loturik, metatesia sortzeraz: *gáu gúzian pástu beaurzié... de guardia; óngi pagátu beaurzié, bai*.

²⁴ Iraganaldian: Arrietan, sing. 1. pertsonarako, *nu* eta *nie* ere aditurik gaude inoiz, baina era hauek zinez bakanak dira; plur. 1. pertsonarako, berriz, *gnue* ere bai.

²⁵ Adoaingo iraganaldiko adizki guztiak *n-z* amaiturik daude, inguru honetan guztian nagusia den joeratik aparte, zenbait lekutan, Arrietan bereziki, bi eratako bukaerak ikusten baditugu ere.

²⁶ Elkano 1869' zutabeen, 2. pertsonan, *yue* eta *indue* dugu tokarako zein nokarako; biak bietarako, alegia, Yizarrrek *Muanm* delakoan adierazi bezala. Arrietan ere, antzera, *yue* / *yindue* gisako aldaerak ditugu.

²⁷ Elkano <1800>' zutabeko *gindu* era oso bitxia da, baina Lizarragak inoiz erabili zuen.

²⁸ Uritzko lagin hau *zute* batetik atera dugunez, 'zuten' ere izan liteke agian, baina herriko joera nagusia iraganaldiko azken *-n-aren* galeraren norabidean doa.

NOR-NORK (NOR haiek), orainaldia eta iraganaldia

Zabalegi 1785	Elkano <1800>	Elkano 1869	Ilurdotz 1865	Uritz 1865	Arrieta 1985	Adoain <1855>
	ditut, tut tuzu / tuk	ditut, tut dituzu, tuzu / dituk; -tun	ditut, tut dituzu, tuzu		tut ²⁹ tuzu / tuk; tun	ditut dituzu, tuzu
ditu, tu	ditu, tu	ditu, tu	ditu, tu	ditu, tu	tu	ditu, tu
ditugu	ditugu, tugu	ditugu, tugu	tugu		tugu	ditugu
dituze	tuzie, tuze	dituze, tuze	tuze		tuzie, tuze	dituzue, dituzue, ditzue
dituste, tuste	dituste, tuzte, tuste, tute	dituste, tuste	dituzte, tuzte, ditute ³⁰	tuste, tute	tute	dituzte, tuzte
	nitue	nitue	nitue, nituen		nituen	nituen
	zinduz ³¹	zinditue / itue, inditue ³²	zinitue / itue, yitue		zintue ³³	zenituen
zitze, zituen	zitze	zitze	zitze, zituen, zute	zitze, zituen	zitze	zitzen
ginduze	ginduz	ginditue	ginditue, ginitue, gintue		gindue, ginduen ³⁴	
	zinduste	zinduste	zinzitue ³⁵		zindute	
	zituzte, zituste, zuzte ³⁶	zuste	zituten, zuzte, zuzten	zituzte	zitute, zute, zuzten	

²⁹ Orainaldiko zurabe guztietan bada, aferesia dela-eta, adizkien hasierako *di*-silaba galdurik dakusagun kontua. Arrietan, gainera, hauek baizik ez ditugu; 'Elkano <1800>' zurabeen, bietakoak dira eta 'Elkano 1869' delakoan, Ondarraren ustez, *ditut*, *dituzu*, *ditu*... adizkiak *tut*, *tuzu*, *tu* ere izan litezke, honela mintzo baita bera, *ditut* adizkiari erantsiriko ohar baten bidez: 'Subrayada la *di* inicial de Elcano y Puente de las formas *ditut*, y la *di* de *dituzu* en Puente, indicando, a nuestro entender, que hay que subrayar esa letra ['silaba' behar luke] en todas las personas que empiecen por *di*-, pues de cada *di*-subrayado parte un trazo vertical, que indicaría eso'. Adoainen ere badira orain osorik, orain laburturik, agertzen diren erak.

³⁰ Ilurdorzen, pluraleko 3. pertsonan, *tute* eta *ditute* ere bai.

³¹ Iraganaldian: 'Elkano <1800>' zurabeko *zinduz* eta *ginduz* erak (sing. 1.a), Elkano beste zurabera gabe Zabalegira begira badaude ere, Ilurdoko leihatilan (plur. 1. pertsonan) ageri direnez gainera, *ginduzeki* zein *ginduze* bildu genuen, azken hau bai, Zabalegin eta 'Elkano <1800>' an ditugunen harikoa, objektu singular bati loturik eman baziguten ere. Era hauxe, bidenabar esanik, Arzibarrek iparraldean duen Aezkoa aldean, ohikoa ez ezik, erabatekoa da.

³² 'Elkano 1869' zurabeen, sing. 2. pertsonan, *itue* / *inditue* dugu tokarako zein nokarako; biak bietarako; biak bietarako, Yizarrek *Mvaanm* delakoan agerian ezarri bezala.

³³ Arrietako *zintue* hori sinkopa baten ondorioa da: *Iriñen bitzi*... *zintelak*, *bazintue*... *izabirmitak*? Adoaingo *zenituen* horretan, berriz, 'zenituen' baten errata bide dago.

³⁴ Arrietan, agi denez, *gindue* / *ginduen*, *zindute* eta *zute* erak pluralizatu gabe eman zitakiguten.

³⁵ Ilurdoko *zinzitue* hau (plur. 2. pertsona) bitxi samarra iruditzen zaigu.

³⁶ Plur. 3. pertsonari dagokionez, 'Elkano <1800>' zurabeen, *zitute* eta *zuste* ere bai, Ilurdokoan *zituzten*, eta Uriako adizkia, erlatibo honetatik aterata: *len izancitusten gorpuz eta arima verequin*.

NOR-NORK (NOR ni), orainaldia eta iraganaldia

Zabalegi 1785	Elkano <1800>	Elkano 1869	Ilurdorz 1985	Uritz 1865	Arrieta 1985	Adoin <1855>
nauzu / nauk	nauzu / nauk	dirazu / dirak ³⁷	nauzu, direzu, didez ³⁸		dirazu / dirak, nauk ³⁹	
nau > naik	nau > naik	dira > zirak	nau, dire		dira	nau ⁴⁰
nauzie, nauze	nauzie, nauze	diraze	nauze, direzie, didezue		dirazie	
nauze	nauze	dirate	nauze, direte, didete		dirate, nute	
		zindira ⁴¹	zirezu		zirazu	
nindue	nindue	zira	zire, zide		zira, ziran	ninduen
ninduzie, ninduzie	ninduzie, ninduzie	zindiriate	zirezie		zirazie, zindiriate	
nindute	nindute	zirate	zirete		zirate, zidaten	

³⁷ Orainaldian –eta, honetan, baita iraganaldian ere– ohartzeko modukoa da *nor-nori-nork* saileko erak ‘Elkano 1869’eko eta Arrietako zutabeetan agertu izana (Ilurdorzen bi moldeetakoak ditugu). Ez dakigu Elkano bi zutabeen arteko ezberdintasuna mende eskas baten inguruko denboran gertatu zen ala Lizarragak erabilitakoak bere herritik kanpo ikasi zituen, *nauzie, nauze* eta *ninduzie, ninduzie* adizkiek azken aukera honen alde jotzen ez badute ere. Yrizarrek maiz aipatu zuen era triperstonalek, dela inguru hauetan, dela beste askotan, bipertsonalak ordezkatu dituzteneko kontu hau. Ilurdorzen, esan bezala, bi eretako erantzunak baditugu ere, berriemaileak *nor-nori-nork* sailekoak errazkiago eman zituen besteak baino; hauetako batzuk, gainera, lagunduta bakarrrik.

³⁸ Ilurdorzen, halaber, ‘zuk ni’ kasurako, *naizu* eta *nizu* eman zituten, eta ‘hark ni’ kasurako, *neuk* tokako alokutiboa, baina honek ‘hik ni’ kasurako behar duelakoan gaude, ‘nauk’ batetik eratorria edo: ‘ikusi nauk > ikusi neuk’, alegia.

³⁹ Arrietan, esan bezala, *nor-nori-nork* saileko erak bilduagatik ere, *nor-nork* gisako pare bat eman zituzten: *nauk* –tokako era– eta *nute*.

⁴⁰ Adoainen ditugun bi laginak, ‘Elkano <1800>’ zutabearen direnekin bat datoz, iraganaldiko eraren bukaerako *-n-a* gorabehera.

⁴¹ Iraganaldiko ‘Elkano 1869’ honetan, Ilurdorzoan eta Arrietakoan bezala, era triperstonalak baldin baditugu ere, erok garbiagoak dirudite azken bi herri hauetakoak baino, hauetan nozitzen den pertsona-markaren erreplikapena agerikoa delako. Arribartik hurbil, halere, Erroibariko Aurizberri herrian, Elkanoekin antz handia duten erak eman zituztugun Rafael Urtaşun bertako semeak, 1985ean: *zindara, zeda, zindante* eta *zedate*. Erok antzekotasun handia dute, halaber, gaur egun Aezkoan nagusiki erabiltzen direnekin –ikus P. de Yrizarren *Mvubnoc*–, bestelakoak, egokiak, neurri batean mantendu badira ere.

NOR-NORK (NOR gu), orainaldia eta iraganaldia

Zabalegi 1785	Elkano <1800>	Elkano 1869	Ilurdotz 1985	Uritz 1865	Arrieta 1985	Adoain <1855>
	gaituzu	diguzu	diguzu		diguzu	
digu ⁴²	gaitu	digu	digu, gaitu ⁴³	gaitu	digu	gaitu
		diguze	diguzue, diguzie		diguzie	
	gaitute, gaituzte	digute	digute	gaituzte	digute	
		zindigu ⁴⁴	ziguzu		ziguzu	
	ginduz ⁴⁵	zigu	ginduzki, zigu	ginduz	zigu	
		zindigute	ziguzie, ziguzi ⁴⁶		ziguzie	
	ginduzte	zigute	zigute		zigute	

⁴² Hona, orainaldian, arrestian aipatu ordezkapenaren lekukotza Zabalegi sermoian ere: *vergatic Jangozoac ustenbadigu asistitubague bere graciarequi...* Esanik utzi dugun moduan, Bonaparteren Elkano berriemaile Larraizarrak ere era desegokiak erabili ohi zituen *nor-nork* kasurako, herri bereko Lizarragak, urte batzuk lehenago, egin ez bezala.

⁴³ Ilurdozko *gaitu* hori guk zirikatutirik bakarrik eman ziguten: *bilétikó... gáitu*.

⁴⁴ Iraganaldian: 'Elkano 1869' zutabe honetan, Ilurdozkoan eta Arrietakoan bezala, era tripersonalak baldin baditugu ere, erok garbiagoak dirudite azken bi herri hauetakoek baino, hauetan nozitzen den persona-markaren errepikapena agerikoa delako. Artzibartik hurbil, halere, Erroibarko Aurizberri herrian, Elkanoekokin antz handia duten erak eman zizkigun Rafael Urreasun bertako semeak, 1985ean: *zindagu, zegu, zindagute* eta *zegute*. Erok, antzekotasun handia dute, halaber, gaur egun Aezkoan nagusiki erabiltzen direnekin –ikus P. de Yrizarren *Muabnoe-*, bestelakoak, egokiak, neurri batean mantendu badira ere.

⁴⁵ Iraganaldiko emaitzetan 'Elkano <1800>' zutabean dugun *ginduz*, Urizkoarekin bat datorrena, honako esaldian: *Guindendeláic ilic viztugundúza Jesu Christoc barrátus becátuas* (Doctrina). Ikus daitekeenez, *ginduz*a honek berdin balio du 'hark gu' kasurako, adibide honetan bezala, zein 'guk hatek' erako.

⁴⁶ Ilurdozko *ziguziti* erak, balizko **ziguz(u)te* bat dakarkigugu gogora, behin *nor-nori-nork* sail desegokian sartuta egonda.

NOR-NORK (NOR zu), orainaldia eta iraganaldia

Zabalegi 1785	Elkano <1800>	Elkano 1869	Ilurdoz 1985	Uritz 1865	Arrieta 1985	Adoin <1855>
	zaitut / aut ⁴⁷	dizut / diat	zaitut, dizut	zaitut	zaitut, dizut / aut, diat	
	zaitu	dizu / dik	zaitu	zaitu	zaitu, ztu, dizu / dik	zaitu
	zaitugu	dizugu	zaitugu		zaitugu	
	zaitute, zaituste	dizute	zaitute, zaitue, dizute		zaitute ⁴⁸	
	zinduzada	nizu ⁴⁹	nizu		nizu	zindudan ⁵⁰
	zinduza	zizu	zizu		zindue	
		gindizu	ginduzu		gindizu	
	zindute, zinduste	zizute	zizute		zindute	

⁴⁷ Elkano Lizarra garen denboretatik ('Elkano <1800>', zutabea) Louis-Lucien Bonapartek herri bereko Larrainzari ('Elkano 1869')koa datu hauek bildu zituzkionerako, *nor-nori-nork* saileko adizkiek *nor-nork* erakoak ordezkatuak zituzten jada, Ondarrak prestatu lanean ikus daitekeenez: *il vous l'a; il vous a*. Ilurdozko eta Arrietako berriemalleek, haatik, 'nik zu' sail honetan, ongi samar eutsi zieten molde egokiko adizkiei. Arrietan bildu adibide batean, gainera, *ztu* era laburra dugu: *il inen ztu orrek*. Herri honetako *zaitute* era, bidenabar esanik, laguntzaz, hau da, guk bultzaturik erdietsi genuen. Arestian egin dugun iruzkin bati jarraipena emanez, esango dugu ezen, hurbileko Aurizberri herrian, Erroibarko iparraldean, bi moldeetako erantzunak eman zituztela: *zaitut, zaitu, zaitugu* eta *zaituzte, alde batetik, eta dauzut, dauzu, dauzugu* eta *dauzute*, bestetik.

⁴⁸ Arrietako *zaitute* hau laguntzaz, hau da, guk bultzaturik erdietsi genuen.

⁴⁹ Iraganaldiko kasu honetan, Aurizberri bildurikoez ez dute ezertan laguntzen, era tripersonalak baizik ez baikenuen bildu: *neuzu, zeuzu, ginduzu* eta *zeute*.

⁵⁰ Adoango lagina (liburuetako lapurteraz, 'zintudan') egokia izan arren, inguru hauetatik kanpokoa ote den gaude, zeinekin erkatu askorik, 'Elkano <1800>' rekin izan ezlik, ez badugu ere. Ilurdozten, plur. 1. pertsonan, *gindizu* itxaron zitekeen agian, era hau, berez, desegokia dela jakinda ere.

NOR-NORK (NOR zuek), orainaldia eta iraganaldia

Zabalegi 1785	Elkano <1800>	Elkano 1869	Ilurdoz 1985	Uritz 1865	Arrieta 1985	Adoain <1855>
	zaiztet, zaistet ⁵¹	dizet	zaitutet ⁵²		zaitute (!), diziet, dizuet	zaituztet
	zaizte, zaiste	dize	zaitute, dizute		zaitute	zaituzte, zaitute
	zaizte, zaiste	dizegu	zaitutegu		zaitutegu ⁵³	
	zinduztet, zindustet ⁵⁴	dizete	zaitute		zaittee	
	zinduste	nize	nizute		nizu (!)	
		zize	zituztute, zaizute		zizu (!)	
		gindize	ginduzue		zindugu	
		zizete	zinzue (!)		zindute	

⁵¹ Orainaldian, 'Elkano <1800>' zutabeko erak –ixuraz *zaituztet*, *zaituzte*... direlakoan sinkopak– Ilurdozko zein Arrietakoetatik aldenduaxeak dakuskiugu. Adoainen dirugunak, bai, lapurtera klasikoan ohikoak dira eta litekeena da Aita Esteban hatetaz baliatu izana Lapurdin egon zen denboran. Fraide urraulgoitiar honek, halaber, 'hark zuek' kasurako, *zaitute* erabili zuen, Ilurdotzen eta Arrietan bildu bezala.

⁵² Harrigarria egiten zaigu, beste pertsonen arteko jokoan era tripersonalek bipersonalei lekua nola jan dieten ikusi ondoren, oraingo honetan, euskara azken hatsetan aurkitu dugun Ilurdoz eta Arrieta herri txikiarako berriemaileei, euskara erdi ahantzirik zeukaten hauei, alegia, era egokikoak harrapatu izana, hurbileko herrietan ere ikusi dugun joera nagusia, hain txertatua bestalde, ikusi ondoren.

⁵³ Arrietako 'guk zuek' kasurako dugun *zaitutegu* era, bitxia izan arren, 'Elkano <1800>' zutabearen falta zaigun balizko **zaittegy* batetik oso hurbil dakusagu.

⁵⁴ Iraganaldian, 'Elkano <1800>'ko lehen terroko laginak oso bitxiak iruditzen zaizkigu –*zinduzteda* edo ixaron zitakeen, agian– eta, gainerako zutabeetan, nahasmendua eta zehaztasunik eza nabariak dira.

NOR-NORI-NORK (NOR hura, NORI niri), orainaldia eta iraganaldia

Zabalegi 1785	Elkano <1800>	Elkano 1869	Ilurdutz 1985	Uritz 1865	Arrieta 1985	Adoain <1855>
didazu	didazu / didak	dirazu / dirak	dirazu, didazu / direk		dirazu / dirak	
	dida, dir ⁵⁵	dira > zirak	dira, dire > zirek	dira	dira, dire > zirak	dir
	didazie, didaze	diraze	dirazie		dirazie	
	didate	dirate	dirate, dire	dirate	dirate, diade	
	zindida ⁵⁶	zindira	zirezu		zirazu	
	zida	zira	zire		zire, zira, ziran, zidan	zidan
	zindicate	zindirate	zirezue, zinizue		zirazie, zindirate	
	zidate	zirate	zirere		zirate, zirere, zidaten	

NOR-NORI-NORK (NOR haiek, NORI niri), orainaldia eta iraganaldia

Zabalegi 1785	Elkano <1800>	Elkano 1869	Ilurdutz 1985	Uritz 1865	Arrieta 1985	Adoain <1855>
	tidazu	tirazu ⁵⁷	tirezu		dirazu	
	tida	tira > zirak ⁵⁸	tire > z(a)izkire(k)?	dirakira	dira	
	tidate	tiraze	tirezie		dirazie	
		tirate	direre		dirate, diade	
		zinditira ⁵⁹	zirezu		zirazu	
	zitida	zitira	zitire		zira	
		zinditirate	zirezien, zinizue		zirazie	
		zitirate	zitirete		zirate, zirere, zidaten	

⁵⁵ 'Hark niri hura' kasuan, 'Elkano <1800>'an *dir* bitxi bat dakusagu, zeina, bidenabar esanik, Adoainen ere ageri den, Lapurdi aldeko era *ez* izan arren.

⁵⁶ Elkano bi zutabeetako 'zuk niri' eta 'zuek niri' kasuetako laginek egokiagoak dirudite Ilurdutzen eta Arrietan bildurikoek baino, hauetan zertzen den erredundantzia agerikoa baita. Arrietan, haatik, ixura oneko *zinditirate* bat dugu.

⁵⁷ 'Zuk niri haiek' kasuan, Elkano bi zutabeetan eta Ilurdozkoan ditugun ekaiek bereizten dira, pluralizatzailea hartzean, Uritzko zutabeen ageri den lagin bakarrekoaren moldetik. Arrietakoak, damurik, pluralizatu gabe eman zizkiguten.

⁵⁸ 'Elkano 1869' zutabe 'hark niri' kasuko alokutiboa pluralizatu gabe dago; hala balego, **zirak* edo **zirak* genuke ziurrenik, ez jakin, baina, azken hau izatekotan, Ilurdozko zalantzazkotik hurbilxe genuke. Hau, gainera, logikoa iruditzen zaigu Uritzko lagina kontuan hartuta, zeinaren barruan *-zki-* dakusagun. Arrietako adizki guztiak singularrean bildu genituen; pluralrean eman balizkigute, ez dakigu Elkano eta Ilurdutzen bildurikoen antzekoak izango ziren ala **dirakira*, *dirakira* modukoak, Uritzen dugun lagin bakarrek tradoki bezala.

⁵⁹ Arestian esan bezala, 'Elkano 1869'ko 'zuk niri' eta 'zuek niri' leihatiletako *zinditira* eta *zinditirate* egokiagoak iruditzen zaizkigu Ilurdutzen eta Arrietan bildurikoak baino.

NOR-NORI-NORK (NOR hura, NORI guri), orainaldia eta iraganaldia

Zabalegi 1785	Elkano <1800>	Elkano 1869	Ilurdoz 1985	Uritz 1865	Arrieta 1985	Adoain <1855>
	diguzu	diguzu / diguk	diguzu		diguzu / diguk	
digu	digu	digu	digu	digu	digu	digu
	diguzie	diguzie	diguzie		diguzie	
digute	digute	digute	digute		digute	digute
	zindigu	zindigu ⁶⁰	ziguzu, ziguzu		ziguzu	
zigu	zigu	zigu	zigu	zigu	zigu	zigu
		zindigute	ziguzue		ziguzie	
	zigute	zigute	zigute, ziguten		zigute	

NOR-NORI-NORK (NOR haiek, NORI guri), orainaldia eta iraganaldia

Zabalegi 1785	Elkano <1800>	Elkano 1869	Ilurdoz 1985	Uritz 1865	Arrieta 1985	Adoain <1855>
		diguzu ⁶¹	diguzu	dirzikiguzu	diguzu	
dirzikigu	tigu	tigu > ziguk	tigu > zaizkigu(k)?	dirzikigu ⁶²	digu	dirzikigu, dauzkigu ⁶³
	tigute	tiguzie	tiguzie		diguzie	
		tigute	tigute		digute	
		zindigu ⁶⁴	zitiguzu		ziguzu	
	zitigu, zizkigu	zitigu	zitigu		zigu	
		zinditigute	zitiguzue		ziguzie	
	zizkigute	zitigute	zitigute		zigute	

⁶⁰ ‘Zuk guri hura’ eta ‘zuek guri hura’ kasuetan, ‘Elkano 1869’ zurbetako *zindigu* eta *zindigute* gisako laginek (biotako lehena Elkanoko beste zutabeen ere bada) egokiagoak dirudite Ilurdozen eta Arrietan bilduriko *ziguzu*, *ziguzue* / *ziguzie* gisakoek baino, lehen ere, antzeko kasuren bat aipatzean, adierazi dugun bezala.

⁶¹ Adizki hauetan, oro har, *-zki-* eta *t-* pluralizazioak dakuskiugu. Lehenengoak, Zabalegin, Uritzen eta Adoainen; besteak Elkanon eta Ilurdozen. Herri honetan dakusagun alokuriboa, baina, zeina **zizkigu*k desitxuratu bat izan litekeen, oraingoan ere Zabalegiko zein Uritzko ‘dirzikigu’ bezalako adizki batetik aterata legoke. ‘Elkano 1869’ko *ziguzk* era, aldiz, Ondarrak prestatu lanean pluralizatu gabe ageri dena, **zitiguzk* batetik dela iruditzen zaigu.

⁶² Uritzko leihatilako laginak agintera- edota subjuntibo-modura erabili zituen Elizalde. Arrietako erak, pluralizatu gabe eman zituzkigutenez, erkaketa-kontu hauetatik kanpo gelditu dira.

⁶³ Adoaingo *dauzkigu* aldaera, bere albooa ez bezala, lapurtera klasikoan ohikoa izan da.

⁶⁴ ‘Elkano 1869’ eta Ilurdozko zurbetako *zindigu* / *zitiguzu* adizkien arteko lehia –jada aipatu– alde batera utzita, ‘Elkano <1800>’ an ageri diren *zizkizu* eta *zizkigute* adizkiak Zabalegira eta Uritza begira daude. Edozein kasutan, hark guri hatak kasurako, bi eratako pluralizazioak dirugu Elkanoko Lizarragaren izkribuetan (‘Elkano <1800>’), *zitigu* eta *zizkigu* adizkiek darakusten bezala.

NOR-NORI-NORK (NOR hura, NORI zuri), orainaldia eta iraganaldia

Zabalegi 1785	Elkano <1800>	Elkano 1869	Ilurdorz 1985	Uritz 1865	Arrieta 1985	Adoain <1855>
dizut	dizut / diat	dizut / diat; diinat	dizut / diat; diinet*		dizut ⁶⁵ / diat; diet; ñat	dizut
dizugu	dizu / dik; din	dizu / dik; din	dizu	dizu	dizu / dik	dizu, dauzu ⁶⁶
	dizugu	dizugu	dizugu		dizugu	
	dizute	dizute	dizute		dizute	
	nizu / nia	nizu / nia	nizu / nie		nizu	nizun
	zizu	zizu	zizu		zizu	
		gindizu	gindizu		gindizu	
	zizute	zizute	zizute		zizute	

⁶⁵ Arrietako gure ekaitetan, sing. 1. pertsonan, *zaitut* bat dakusagu, kasu honetarako desegokia bada ere: *ez, zuri, galdiko...* [= galdetuko] *zaitut? ya non, non gauden*. Ilurdozko lehatilan, nokako *dinez* adizkiaren alboan paratu dugun ikurra dela eta, lehenagoko saio batean, 'Arzibar-6' delakoan, egin genuen oharra orotaraziko dugu: 'Laguntzaz emaniko hitzak izarño bati (*) loturik idatzi dirugu'.

⁶⁶ Adoaingo sing. 3. pertsonako *dauzu* aldaera Lapurdi aldean ikasi bide zuen Aita Estebanek.

NOR-NORI-NORK (NOR haiek, NORI zuri), orainaldia eta iraganaldia

Zabalergi 1785	Elkano <1800>	Elkano 1869	Ilurdotz 1985	Uritz 1985	Arrieta 1985	Adoain <1855>
	tizut, dizkizut ⁶⁷ / tiat	tizut / tiat; tinat	tizut		dizut / diat, diet; ñat ⁶⁸	
	tizu	tizu / tik	tizu		dizu / dik	dazkitizu ⁶⁹
	tizugu	tizugu	tizugu		dizugu	
	tizute	tizute	tizute		dizute	
		nizkizu ⁷⁰	nizuzu		nizu	
	zizkizu	zizkizu	zizizu		zizu	
		gindizkizu	gindizizu		gindizu	
		zizkizute	zizuzute (?)		zizute	

NOR-NORI-NORK (NOR hura, NORI zuet), orainaldia eta iraganaldia

Zabalergi 1785	Elkano <1800>	Elkano 1869	Ilurdotz 1985	Uritz 1985	Arrieta 1985	Adoain <1855>
	diziet, dizet	dizet	diziet		diziet	dizuet, dau(t)zuet ⁷¹
	dizie, dize	dize	dizie		dizie	
		dizegu	dizieu		ziegu	
nize	dizie	dizete	diziete		dizute (?)	
	nizie, nize	nize	nizue		nizie	
	zizie, zize	zize	zizue		zizie	
		gindize	gindizuzute (?)		gindizie	
		zizete	zizuzete			

⁶⁷ 'Elkano <1800>'ko *dizkizut* adizkia ohiki ez, baina Lizarragak inoiz erabili zuen.

⁶⁸ Arrietako erak pluralizatu gabe dakuskiugu berriro ere, bertako bertimailea ez baitzen arduratzen halakoak tarrekateaz beharrezkoa zenean.

⁶⁹ Adoaingo zutabeko *dazkitizu* hori lapurrera da, nahiz gure egunotako bere kokapena, oro har, muga ondoko Urdazubi-Zugarramudira eta Baztango ibarrera mugatu den (ikus Yrizar, *mval*), Lapurdiko eremurik zabalenean *zaitzkitzu* adizki desegokiak ('haiek zuri') bidegabeki ordezkatu duenez.

⁷⁰ Deigarria iruditzen zaigu, 'Elkano 1869'ko zutabean, aurreneko aldiz eta orain arte ikusi denaren kontra, *-zki-* erako puratzaileak ikustea. 'Elkano <1800>'koan dugun lagin bakarrean ageri den pluralizaille honexek, ordea, ez gaitu harritzen, lehenago ere, inoiz edo behin, bestearekin nahasia ikusi dugulako.

⁷¹ Orainaldian, zer iruzkindu behar askorik ez badugu ere, Adoaingo adizkiek kanpotiarrek diruditela esatea dagokigu; Gipuzkoako lehena eta Lapurdi aldekoa bestea.

NOR-NORI-NORK (NOR haiek, NORI zuei), orainaldia eta iraganaldia

Zabalegi 1785	Elkano <1800>	Elkano 1869	Ildortz 1985	Uritz 1865	Arrieta 1985	Adoin <1855>
	tiziet, tizet	tizet	tiziet		diziet	dauzuet, daukitzuet ⁷²
		tize	tize		dizie	
	tizie	tizegu	tizegu		zizegu	
	nitezie	tizete			dizute (?)	
		nizkize ⁷³			nizie	
		zizkize			zizie	
		gindizkize			gindizie	
		zizkizete				

⁷² Adoingo 'nik zuei haiek' honetan ditugun bi eretatik lehena, objektu singularrekin erabili zuen behin Aita Estebanek eta pluralarekin beste aldi batez; biak ere lapurteraren baitakoak.

⁷³ Iraganaldi honetan, 'Elkano 1869'ko zurabea ditugun adizkiek, berriro ere, tarteko pluraltzailaren arteko lehia areagotzen dute. Horrela, ikusi dugun moduan, 'hark niri haiek' eta 'hark guri haiek' kasuetarako *zitiua* eta *zitiugu* ditugun bitartean, 'hark zuri haiek' eta 'hark zuei haiek' kasuetarako *zizkizu* eta *zizkizute* dakuskiugu, hurrenez hurren.

NOR-NORI-NORK (NOR hura, NORI hari), orainaldia eta iraganaldia

Zabalegi 1785	Elkano <1800>	Elkano 1869	Ilurdutz 1985	Uritz 1865	Arrieta 1985	Adoain <1855>
	diot	diot	diot	dut (!)	dakot ⁷⁴	diot
	diozu / diok	diozu / diok	diozu / diok		dakozu / dakok	diozu
dio	dio	dio > zio	dio > zio	dio	dako > dakok ⁷⁵	dio
	diogu	diogu	diogu		dakogu	diogu
dioze	dioze	dioze	diozue		dakozte	diozue
	diote	diote > ziotek	diote		dakote > ziakotek	diote
	nio	nio	nio		neko, nekon	nion
	zindio	zindio	zindio		zindeko	zinion
zio	zio	zio	zio		zeko, zekon ⁷⁶	zion
	gindio	gindio	gindio		gindeko	
	zindio ⁷⁷	zindio	zindiozue		zindekote	
ziote	ziote	ziote	ziote		zekote, zakote	zioten

⁷⁴ Orainaldian Arrieta da, Aezkoako mintzamoldearen eraginagatik, antza, beste herrietan ohikoa den paradigmatik nabarmentzen dena (hau, gainera, orainaldian bakarririk ez, iraganaldian ere gertatzen da). Uritzko goiko leihatilara ekarri dugun *nor-nork* saileko *dut* adizkia ez da, jakina, egokia hor kokatzeko, baina bertako doktrinaren era tripersonala ordezkatzeko ari dela ikus daiteke: *orgatic otoiz itendut San Miguel ainguruarri...*

⁷⁵ Arrietan, 'hark hari' kasuan, *dakok* hori ez baina, **ziakok* era alokutiboan itxaron zitekeelakoan gaude, bertako berriemaitleak, 'haiek haiei' kasurako, *ziakotek* eman zigula kontuan hartuz. Balizko **ziakok* hau, gainera, hurbileko Aezkoan aditu dugun 'xakok' –zeina 'xiakok < ziakok' batetik bide den– era bustiaren antzekoa izango litzateke. 'Elkano 1869' eta Ilurdozko zutabeetan, gainera, *z-* dugu alokutibo honen hasieran.

⁷⁶ Arrietako iraganaldiko 'hark hari hura' honetarako *zako* / *zakon* aldaerak ere eman zizkiguten.

NOR-NORI-NORK (NOR haiek, NORI hari), orainaldia eta iraganaldia

Zabalegi 1785	Elkano <1800>	Elkano 1869	Ilurdorz 1985	Uritz 1865	Arrieta 1985	Adoin <1855>
	tiot	tiot	tiot		dakot	diozkat ⁷⁸
	tiozu	tiozu / tiok	tiozu		dakozu / dakok	
	tió, ditio, dizkio	tió > zitiok	tió > zitiok		dako > dakok	diozka
dizkioze ⁸⁰	tiogu	tiogu	tiogu		dakogu, dazkogu ⁷⁹	
	tiote	tiote	tiozue, tiozutue?		dakozite	
	tiote	tiote	tiote		dakote	diote
	nitio	nitio	nitio		neko, nekon ⁸¹	
	zinditio	zinditio	zinditio		zindeko	
zizkio ⁸²	zizkio, zítio ⁸³	zítio	zítio		zeko, zekon	
		ginditio	ginditio		gindeko	
		zinditote			zindekote	
	zizkiote, zítote, ziozte	zítote	zítote		zekote	ziozkaten ⁸⁴

⁷⁷ Elkano bi zutaberako *zinditote* era (plur. 2. pertsona) egokiagoa iruditzen zaigu Ilurdorz *zindiozue* baino.

⁷⁸ Adoingo zutabeen dirugun erak –singularrean emanik dagoen *diote* kenduta—Lapurd aldekoak dira, herri batzuetan horrela eta beste batzuetan *diozkat* eta *diozka* aldaerekin lehia azaltzen direnak. Zernahi gisaz, Lizarragak erabili *dizkio* horren alde, Ondarrak argitaratu eta, ustez, inguru hauetako mintzamoldea islatzen duen ‘Primer sermón en vascuence navarro’ izeneko lanean (FLV 38), *dizquio* eta *dizquiot* moduko erak ikus daitezke.

⁷⁹ Arrietako zutabeen, *dazkogu* kenduta adizkiak pluralizatu gabe egoteaz aparte, sing. 3. pertsonan ageri den *dakok* alokutiboaren ordeez *ziakok itxaron zitekeela esanik gaudé.
⁸⁰ Zabalegin ageri zaigun *-zki-* pluralizalea, jada aipatua, Elkano Lizarragak ere inoiz erabili zuela ikus daiteke, salbuespenez-edo izan arren: *ald dagoldai, ellegacenzáio bát* [...]

soltatucodizquióla cáte guciac (Serm-1).

⁸¹ Arrietako berriemateak, behin berriro, pluralizalearekin asmatu ez-eta, erantzunik singularrean eman zituen.

⁸² Iraganaldian, Zabalegin, sintaxiaren aldetik hemendik ipar-ekialderantz, bereziki, hain bitxiak ez diren esaldietarik bat dugu: *eci ez emategatic escacen zuena, emancizquio ogui*

escatucituenac.

⁸³ ‘Elkano <1800>’ zutabeari behatu bat eman-eta, lehen aipatu pluralizaleen bikoiztasuna agerikoa dela ikus daiteke, Elkano beste zutabeen ez bezala.

⁸⁴ Adoingo lagin hau ere orainaldian ageri direnen ildokoa da, bistan denez.

NOR-NORI-NORK (NOR hura, NORI haiet), orainaldia eta iraganaldia

Zabalegi 1785	Elkano <1800>	Elkano 1869	Ilurdutz 1985	Uritz 1865	Arrieta 1985	Adoain <1855>
	diolet	diolet	diolet		dakotet	diolet
	diozute	diozute / diotrek	diozue		dakozute / dakotrek	diozute
	dioie	dioie > ziotek	dioie > ziotek	dioie	dakote	dioe ⁸⁵
	diogute	diogute	diogute		dakogute, dakoute	
	dioze	dioze, diozete	diozume ⁸⁶		dakozite	
dioie	dioie	dioie > ziotek	dioie		dakote > ziakotek ⁸⁷	dioie, daukote
	niote	niote	niote		nekote	nioten
		zindioie	zindioie		zindekote	
	ziote, zioe ⁸⁸	ziote	ziote		zekote, zekoren	zioten
	gindioie	gindioie	gindioie		gindekote	
		zindioie	zindioie		zindekote	
	ziote	ziote	ziote, zioten		zekote	

⁸⁵Orainaldian ez dugu zer iruzkindu behar askorik; Adoainen, sing. 3. pertsonarako dugun *dioe* labur bezain ezohikoaz gainera –[hark] *adio bat erranen dioe creatura guciet* da adibidea–, plur. 3. pertsonan ageri den *daukote* hori ere bitxi samarra da, sail hauek erak ezagutzen ditugun neurrian ez baita lapurteraz ez behenafarraz agertzen, Arrietan bildu *dakote*-tik hurbil egon arren.

⁸⁶ Ilurdutzan, plur. 2. pertsonarako dugun *diozute* bitxi hori beraiko berriemaileraren transmisio-ahuldadeari zor dakiok, agian *diozue* (sing. 2. pertsonarena bere gisa luzatuz edo), agian *diozute, diozie* edo *dioze* ixaron zitekeen.

⁸⁷ Arrietan *dakote*-ren alokuribotzat dakusagun *ziakotek* era *nor-nork* saileko testuinguruan eman zuen berriemailerak: *dietamák, ikis ziaoké(k)... sémeai, ikisí dute* ('a los hijos, alegia). Arrieta hauxe da, bestalde, arestian 'nik hari hura' saila iruzkinduzan esan dugun moduan, Aezkoako hizkeraren eraginagatik, ziurrenik, beste herrietan ohikoa den moldetik bereizten dena, eta hau orainaldian bakarrik ez, iraganaldian ere gertatzen da.

⁸⁸ Iraganaldian, 'Elkano <1800>' zutabea, 'hark haie' kasuan ageri den *ziote* hori ere, arestian aipatu Adoaingo *dioe* eraren kasuan bezala, salbuespena da ohiko *ziote*-ren ondoan. Horrez gainera, iraganaldian, singularreko eta pluralreko 2. eta 3. pertsonak ez dira ohiki bereizten, hainbat eta hainbat lekutan gertatzen den bezala.

NOR-NORI-NORK (NOR haiek, NORI haiei), orainaldia eta iraganaldia
